


25. zenbakia / 2013ko abendua

Leizako
aldizkaria

Marmari

- Bertsoaren doinuak Leitzan
- Leitzako dantza taldeari elkarrizketa
- Orantzaroa
- eta gehiago...

Hemen da
Marmari;
herritarrak,
doinuak eta
hitzak dantzari



zenbaki honetan:



● 3. or. Aurkezpena

● 4-7. or. Negubidean, eguberrietako ospakizunetan

● 8-12. or. Bertsoaren doinuak Leitzaan

● 13-17. or. Danza taldeari elkarrizketa

18-19. or. Petra Azpiroz leitzarra

20-23. or. Leitzak 20 urte UEMAn


24-26. or. Amazabal Patronatua

27. or. Hi!

28. or. Baietz asmatu!

- **Argitaratzailea:** Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- **Diseinua:** Allende Arnaiz
- **Maketazioa:** astidiseinua.com

- **Argazkiak:** AEK, Berria, Leitzako euskara zerbitzua, Joseba Sagastibeltza eta Onintza Bengoetxea, Leitzako Kultur Taldea, Leitzako Udala, Miel Mari Elosegi, Pello Etxaniz eta Rikardo Galdeano



MARMARI aldizkariaren 25. zenbakia duzu honakoa. Leitzazaten dugu gai nagusia gure aldizkarian eta honetan ere halaxe da. Herria, euskara, kultura eta beste jakin-garri batzuk aurkituko dituzu barruko orrialdeetan, hitzak irudiz hornituta.

Leitzako kontuak ekarri ditugu, eta besteak beste bertsoa izan dugu aztergai. Garai bateko bertsogintzari azaleko begiratu bat eman diogu, eta gaurko bertso eskolaren berri xeheago ematen saiatu gara. Dantza taldeari ere eman diogu begiratu eta gaurko dantza taldeko kideak izan ditugu infor-

mazio-iturri. Atzoko eta gaurko hainbat argibide eskuratu ditugu Joseba eta Onintzari egindako elkarrizketan.

Leitzar askok, gazteenek bereziki, agian ezagutzen ez duten leitzar baten aipamena ere ekarri dugu. Petra Azpiroz duzu, Lizarrako lehendabiziko ikastolako lehendabiziko andereñoa hain zuzen ere. Beste pertsonaia sonaturen bat ere ekarri dugu orriotara, Patxi Arrazola ere agertzen baita Amazabal Patronatuz idatzi dugun lan-txoan.

Pertsonak ekarri ditugu aldizkarira, beraz, baina baita erakundeak ere. Orain-

goan UEMA dugu erreportajerako gaia, aurtan egin baititu 20 urte Leitzako Udalak UEMAn. Bada zerbait.

Aldizkariaren, bestalde, bi kolaborazio ditugu. Batak Orantzaroaren eta bertako usadioaren berri ematen digu, leitzarren hitza barne. Besteak, berriz, hitanoaren inguruko gogoetatxoa egin digu, denontzako interesgarria zalan-tzarik gabe.

Badugu gaia beraz, bai irakurri nahiz ikasteko eta bai ondoren gogoeta pixka bat egiteko. Pasa orria, nahi izanez gero, eta sartu Marmarik eskaintzen dizkizun irakurgaietan barna.

Negubidean, eguberrietako ospakizunetan



Orantzaroa 1986. urtean, emakume jantzian.

Eguberriak ate joka ditugu eta, gaurkoan, bileran goxoago egoteko, beheko sua biztu dugu kultur taldeko kideok. Sua biztearekin batera, gogora etorri zaizkigu negubideko sasoi horri buruz gure xaharrek azken urteotan kontatu dizkiguten istorioak.

Badira urte batzuk etxez etxe, baserri baserri, gabiltzala galdezka: garai bateko ohiturak eta bizimodua, garai bateko eguberriak (orantzaroa), inauteriak (ioterik!)...Eta, zer dela eta? Ba, ohartu ginelako kultur taldeak bazuela hor gure herriko nortasunean eta sustraietan zer landua: gure aurrekoen oroimen kultural historikoa galzorian, desagertze bidean zela.

Lanketa hori egitea izugarria izan da, zoragarria. Eta jasotako istorioak eta kontakizunak aberats izugarriak. Eskerrik beroenak gure xahar guziei, aita-amei eta aitona-amonei.

Suarekin hasi gara eta suarekin segituko dugu: lehengo jendeari galdetu diogunean ere suaren inguruan egon gara maizenik: telebistarik eta soinurik gabe. Txinpartak hausten duen isiltasunean, suari begira, suaren inguruan. Eta giro berezi horrek berak xaharren mundu zoragarria berpizten lagundu digu. 60, 70, 80 edo 90 urtetan atzera egitea ahalbideratu digu. Suaren galden bidez lehengo mendeko sukaldeetara joatea lortu dugu, eta orduko Leitza ikusi ahal izan dugu.

Hona jaso dugun ondare kultural horren izpi batzuk, suaz eta eguberriez bereziki:

Negubidea Leitza: eguberriak, suak, Orantzaroak, kalabazak...

Orantzaroa *sekule guziko*a dela esan digute, baserri munduan eta herrian, auzo guzi-guzietan. Eta, besteak beste, honako elementuak nabarmendu dizkigute galdetutakoek:

Orantzaro izena zuen eguberrietako festak

Orantzaroa da hemengo hitza, bertakoen mintzoan. Esana eta izana: *orantza*, legamia, eta *aroa*, garaia; alegia, ospakizunetarako eta otorduetarako garaia. Eguberrien, eguzki-berri egunen, adi-tuen arabera, ospakizuna.

Gizaki itxurako panpinak jartzen ziren emakume edo gizon figuran

Testigantzarik zaharretako baten arabera, Plazaolako trenea martxan paratu zenean, Estazioko horretan, han ondoan, Garagartza baserrian, balkoian, hantxe omen zegoen Orantzaro panpina emakume itxuran, baserriko etxeakoandrea bailitzan, barandan besoak jarri eta, trenari begira, lasai ederrean, buruan pañuloa zuela. Trenean zihoazenek harriturik begiratzen omen zioten Orantzaroari, emakumea zela sinesturik, elurra ari baitzuen, eta hotz handia baitzen egun hartan.

Itxura desberdina zuen Orantzaroak, etxeoro eta urteoro

Orantzaro irudia urtero aldatzen zuten eta urtero desberdina egiten saiatzen ziren, ahalik eta politena eta bereziena batzuek eta ahal zen modukoa besteek. Diotenaren arabera, horrelakoak ziren orantzaroak: *“nahi zunak nahi zun bezelakoa itten zien, batzuk gizonezkoak eta besteek emakumezkoak, eta urtero diferenteak, uaingoa beño askoz polit-tegoa zen ordukoa”*.

Arraroa da kontua, baina aitona-amonek egin dizkiguten deskribapenetan orantzaro ikazkinik ez dago. Izanzen, beharbada, horrela irudikatu izanen zuen norbait, baina hori ezin izan dugu jaso. Bestelako hamaika itxura eta lanbidetakoak edo itxurakoak jaso ditugu: jostuna eserita, pañuloa buruan; ardazketan ari den baserritar andrea; aizkolaria lanean; baserritarra segan hasteko prest; baserritarra igitaiarekin;



Orantzaroa 1948. urtean.

baserritarra puntua egiten; emakumezkoa haurtxoa sehaskan duela, ehiztaria etxerako bidean, gizaki itxurakoa tximinieren puntan makila hartuta mendira balihoa bezala, amerikano jantzian (ikus 1948ko irudia), ezkontzetako arropa dotorearekin jantzitako emakumezkoa, sorgin xaharra; egunkaria irakurtzen ari zen gizasemea; kinke, argia egiteko, eskutan zuen herritarra... Eta beste hainbeste itxuratako gizaki irudi eder jendearen gogoan, beti ere ahalik eta egokiena eginak, orantzaro egunean etxeko leihoan, balkoian, ganbaran edo tximinian...

Orantzaro enborra balkoian edo salan apaindurik

Baserriren batean Orantzaro-enborra, trunko kozkor bat, zepote moduko horrietako bat, paratzen zuten salan: *“erre etzen itten enborra, apaingarri gisa jartzen zuen gure etxen, eguberrietan, orantzaroatan, gorosti adar batzuekin apaindute, hari ere orantzaro deitzen zetzion.”* Garmendia etnologo handiaren arabera, sua izan zen abiaburua, ondoren su hori trunko bihurtu zen, hor testigantza horretan azaldu bezala, eta ondoren etorri zen orantzaroari gizaki itxura ematearena.



Orantzaro-enborra erretzen zen etxe eta baserrietan

Trunko berezia bilatzen zen orantzarotako, orduan erretzeko, eta egunetan itzali gabe iraun zezan: “batzutan behi parek laundute ekartzen zuen barrenaño,” atek ere handiak izaten ziren orduan eta salan barrena, alajainena. Trunko handi hura aurrez begiz joa izaten omen zuten, eta erretzen omen zuten Orantzaro egunean hasi eta egunetan, pixka-pixka, erre ahala bultza eginez, arrimatuz ...

Orantzaro egunean, sua egiten zen atarrietan, baserrietan, saltoka eta jostetan ibiltzeko

Udako solstizioan bezala, neguan ere sua zen nagusi eguberri ospakizunetan. “Etxeko atarin beño ez oso bertan, jakikne, gurasoak sue itten ziuén Orantzaro egunen, su ttikie, denak salto itteko, etxeko guzik itten giñun salto. Gaña, su haren ondoan orantzaro ttiki bet e patzen zuen, suen berotzen bailegoan, eskuk aurreaka zeuzkela... hoik denak itten zien gure etxen! Orantzaro ttiki haren burua kalabaz ttikikin itten zen...”

Hona beste testigantza bat suaren inguruan: “Orantzaro gaben suen pa-

tzen giñuzen eur-arraillek, senideko bat”. Solstizioaren ospakizuna gurean horrela: “Eun hortan, itten giñun han baserrin trunku bet haundie patu suen, eta zenbat senide giñen, hainbeste eur-arraille; bai, arrail bana. Gogoan dauket hori. Ateak aintzen tziun hau esanez:” denantzat bana jarri beaiñu, orantzaroa zelebrazteko...”

Orantzaroa tximiniatik sartzen

Orantzaro paganoaren aztarnak omen dira Orantzaroa mamu edo gaizto ospea izatearenak, adituek esaten dutenez. Alegia, gure baserrietan aipatzen ziren ipuin eta kontu itsusi-ilunak gure aurrekoen sinismenen aztarrenak. Ohikoak omen ziren baserrietan honelako esanerak: “erne gero, haurrek, Orantzaroa sartuko zatzue tximinitik... txintxo gero.”

Orantzarotan opariak egiten ziren, inon deusik egiten ez zen garai haietan

Garai hartan ez omen zen oparirik egiten, esparik ere ez omen zen izaten, ez baitzen horretarako ohiturarik. Hala ere, oparien eta kontsumismoaren gaur egungo joera horiek ezagutzen ez bazituzten ere, adierazi digutenez opariak edo egiteko beste era bat bazen: “opa-

rik? Ordun opari kontuik etzen. Beño ez pentsa, halare, pobrek izanagatik e, gure atte zenak Orantzaro eunen beti estrenatzen zun zerbait berrie, edo espartziñek edo galtzerdi artilllek edo. Fede ikaragarrie zun hortan, urtero izaten zun zerbait...”

Orantzaro begigorri: esan eta kantatu

Orantzaroari begigorri esaten zioten hemen denean, herrian eta baserrietan. Horretaz ari garela, oso adierazgarria da Orantzaroaren kanta, orain berriro samar berreskuratua, nahiz eta baserriar frankok ezagutu eta umetan kantatuak izan. Gogora dezagun letra:

Orantzaro begigorri,
non harrapatu dok arrai hori?
Anikeko barriketan,
(Gorritzarango erreketan)
bart gabeko hamaiketan.
Zer hebillen garai hartan?
Zeruko izarran kontaktetan,
lurreko belarran zamaketan

Orantzaroak sorgin itxura ere izaten zuen

Begigorri deitzen ziotela ikasi dugu. Ba, horrekin lotuta, begira nola kontatu diguten baserri baten inguruko usadioa: “kalabaza asko itten zen hemen, gure baserrin, azindari ematteko eta hola... ba, Orantzaroa itten giñun batzutan, modue giñunen, eta gorputze osatu makil batzuekin eta hola kruzatuz eta belarraz betez eta hola gizaki itxure eman arte, arropa jantziz: espartziñek eta galderdi luzek, galtza urdiñek, atorra..Eta ondoren, goien, burue kalabazakin itten giñion, kalabaza gorriantza hoitako bat hartu, burun tamañetsukoa, barrena ustu, begizuloak eta ezpañek eta markatu, oihal puxkekin itxuretu eta barrenen kandela patu, su eman, eta hantxe patzen giñun Orantzaroa balkoben. Jakiñe, gaben errutitik ikusi

itten eta oso itxurosoa eta beldurgarrie.... Begigorri izanen zen, dudarik ez dena, tipo horretan egiten zen Orantzaroa...



Kalabaza mota hau erabiltzen zen.

Gizaseme bat Orantzaroa balitz bezala bueltaka umeak izutzen

Baserri auzo baten, urtero, mutil bat ateratzen zen gauean, maindire luze batekin dena estalita, burua eta guzi; hor begizuloak eginak eta esperma-edo barrenean argitasun gorria egiten zuena paratuta... Hura han ibiltzen zen bueltaka, eta umeak Orantzaro kanta kantatuz, eta sekulakoak eta bi esaten aritzen omen ziren, izututa, gordeka eta eskapan...

Sorginkeriak eta izua bazterretan kalabazak eta abar erabilia

Orantzaroaren burua itxuratzekoa esana dugu baina ez da kontu bakarra. Begira beste kontakizun bat: *“Ordun sorgin martxa hori izugarri zabaldu zegoan, eta, Orantzaro arratsen eta negu parte hortan askotan zea itten zen: kalabaza hartu, barrenak atera, begizuloak eta ezpañek eta markatu, eta haren barrenen kandela patu, biztute. Kalabazak estartetan eta bide bazterretan patzen zien bai, eta gehiena orantzarotan. Errutitik eta jendea heldu zenen, ikararrie ematteko! Ikarazteko jendea, han gaben hure ikusitte sorgiñe edo ze ote zen harrittute jendea”.*



Amaiera

Gizakia gizaki denetik suaren bidez ospatu edo adierazi omen ditu urtaro aldaketak, batez ere negu eta udako solstizioak, eguzki-ospakizunak. Gurean Euskal Herrian su asko biztu izan da, nola udan hala neguan. Leitzan ere, ikusi duzuen bezala, gure aitona-amonen oroimenaren arabera, Orantzarotan eta, suaren bidez hamaika erritu eta ospakizun egin izan dira, oraindaino.

Hala ere, garbi geldi dadila, hori guzia ez da guri bakarria dagokigun ezaugarria. Begira *Negua ospatuz* liburuan (Eusko Ikaskuntza) nola dakarren kontu hori: *Europa osoan, solstizioko iluntasunari aurre egiteko egurrak, argizariak eta kandelak erretzen ziren; jaiak egin, dantzatu eta abestu, jatekoa eta edatekoa elkarbanatu eta opariak eta doaintzan egiten ziren.*



Edozein moduz, ikusi ahal izan duzuen bezala, irudikatzeke eran eta bestela ere gure usadioa oso berezia eta aberatsa da. Gorde dezagun geurea, beraz. Beno, segi dezagun horrela, egia esanda, azken urteotan berriz ere hasi baikara ikusten Leitzan orantzaro desberdinak, baita emakume itxurako orantzaroak ere, dagokien tokian jarrita, festa anitza plazan. Eta gaueko ospakizunean ere bertako ohiturak berpiztuz modu modernoan..., Orantzaro enborra eta sua, bertako pertsonai mitologikoen oroimena, abesti zaharren kantua, solstizioaren magia eguneratua.

Bukatzeko, jakin ezazue eguberrietako zintzarriez, ondorengo ioteriez eta abarrez beste hamaika kontu gelditu zaizkigula zuekin konpartitzeko. Baina lasai, aurrerago ere izanen duzue gure berri. Bitartean, badakizue, modernitateak, mundua bateratzeko joera horrekin, ez dezala gurea bazterrerara bota, alegia, ez diezaigun geureari bizkar eman, Leitzaldeko orantzaro ereduari eutsi, eta, gure esku dagoen neurrian, indartu dezagun.

ALKE, Leitzako Kultur Taldea.
2013ko neguan.

Bertsoaren doinuak Leitzan

Herri bertsozalea ote da Leitza? Egin ote daiteke horrelako galderarik? Azkeneko urteotan bertsolari txapelketetan eta plazetan dabilzan bertsolarietara erreparatuz gero, ematen du beste inguru batzuetan, Bortzirietan edo Baztanen konparaziora, hemen baino biziago dabilela bertsozaletasuna. Leitzak ez du txapelketetara jende asko eraman, eta urte askoan motel antzean ibili da gure herria bertsozale munduan.

Baina txuri-beltzeko argazkirik ez dugu egin nahi. Bertsozaletasuna furi-furian egon gabe ere, Leitzan badaude bertsozaleak, azken aldian lanean poliki ari den bertso-eskola dugu horren froga, eta lehenago ere izan ziren, bai bertsozale sutsu askoak eta baita bertsolariak ere, alegia, plazatan kantari zebiltzanak edo bertso-paperak egiten zituztenak.

Hemengo produkzioaz zerbait jakin bahi duenak iturri paregabea dauka Patziku Perurenaren *Leitzako Errege-Erreginak* liburuan, makina bat bertso eta kontu ikas ditzake hara joz gero. Gure artikulu honetan, aurreko garaieiz hitz bat edo beste esanen dugun arren, gehienbat azken aldiko bertsozale eta bertsolarietara ariko gara, eta Leitzako bertso-eskolaz bereziki.

AURREKARIAK

Gaur egun suma daiteke Leitzan nolabaiteko bertso giroa. Bertso-eskola badugu eta hor ari direnak bertsoan ikusten ditugu urtean zehar zenbait aldiz. Egia da, hala ere, orain ari diren horiek



Manuel Lasarte, 2006ko martxoan egin zitzaion omenaldian.

bertsozaintza hasi baino lehen eten bat egon dela Leitzan bertso giro horretan. Manuel Lasarte eta Batixte Perurenaren garaitik, esan dezagun, oraingo garai honetara, bertsolarietara motelago ibili den urte dezente joan da. Izaten zen,

bai, tarteka bertso-saio arrakastatsurik —IKA Euskaltegiak inauterietan antolatzen zituenak, Gorritarango pestetan egiten zirenak, eta batez ere Leitzako pestetakoak, normalean puntako bertsolarietara—, baina saio solte horie-



Batixte Perurena.



Peruharriren inaugurazioa, Gorritinean. 2009ko maiatza.

tara mugatzen zen ia dena, eta ez da egon jendaurrerako bertako bertsolari askorik.

Gaurko bertsolariek bertako erreferentziak bilatu behar dituztenean, horrenbestez, urte batzuk atzera jo behar dute: Joxe Manuel Arribillaga *Bordaberri*, Manuel Lasarte bera edo Batixte Perurena, esate baterako. Azken hori Goizuetan Xaltorekin urteetan ibilitakoa da, tragoa eta mokadua tabernariak berak ordainduta, inguruan biltzen zuten jendearen ordainean. Batixte Perurena izan zen, hain zuzen ere, —ume eta gaztetxoen txapelketetan aurkeztutakoak alde batera utzita—, Diego Riaño baino lehen txapelketaren batean parte hartu zuen azkeneko bertsolaria. Ondoren *Luze* eta beranduago Barberia aterako ziren lehiara.

Horiek guztiak baino askoz lehenagokoak dira Lazaro Bengoetxea (1867-1931), garai hartan oso bertsolari ezaguna eta estimatua herrian, edo Kristobal Beriñes (1880-1953), jendearen hain gustuko izaten ziren bertso zirikatzaile eta umoretsu horietatik ale ederrak eta aski famatuak utzi zizkiguna. Bertsolaritzak Leitzan izan duen indarraren adibide gisa, 1927. urteko San Tiburtziotan lau leitzar aritu ziren plazan bertsoan: Kristobal Beriñes, Miel Joakin Barungoa, eta Boxekanbordako Juan eta Inaxio Rekondo.

Arrosnabarrak ere aipa genitzake lehengo tradizioarekin lotuta. Molde zaharrek bertso horiek azken aldera artazuriketara abesten ziren eta, molde ezagunetan oinarrituz, abeslariak puska berriak txertatzen zituzten, gure herriko amorio kontuak azaltzeko. Patziku Perurenak azaltzen duenez, formatu hau oso aspaldikoa da, eta seguruenik gaur eguneko bertsolaritzaren aitzindaria da. Hortaz, ondoren etorriko zen bertso osoa

Azkeneko urteotan bertsolaritzaren eta bertsozaletasunaren nolabaiteko berpiztea gertatu dela esan dezakegu

bat-batean asmatzea. Artazuriketako kanta sorta oso ongi gorde du Leitzak, batez ere emakumeen ahotik, eta ez dira herri asko izanen altxor zahar hau Leitzak bezain ongi mantendu dutenak.

Bertsokera berrietara itzuliz, Leitzak bertsozale ugari izan ditu, batzuk sutsu askoak. Oso lagunarte hurbilean ez bazen ez zizuten bertso egiten, baina bestek egindako makina bat bertso ikasitakoak dira, lagunartean kantatzen zituztenak. Garai batean bertso-paper asko egiten

zen, gaur egun ez daukan indarra bazuen orduan horrek, eta bertsozaleek horietako asko buruz ikasi eta errepikatzen zituzten eta baita tarteka bat-bateko bertsoak bota ere. Bertsozale sutsu horietakoak Leitzako etxe askotan izan dira: Sorobarren, Bordaberri, Gorritinea, Musun, Sasa, Boxekanborda, Luisenborda, Lesakolorreta, Martikonea, Barun eta abar. Horietako batzuek bertsoan txukun aski egiten zuten.

Hortaz, lasai esan daiteke Leitzan ere bertsolaritzak izan duela tradizioa eta garrantzia, hainbat urtez nolabaiteko motelaldia izan badu ere. Urte horietan, bestalde, bertsolari gisa ez baina gai-jartzaile lanetan eta Bertsozale Elkartarekin elkarlanean dezente aritua da Arantxa Iparragirre, eta Karrape Irratiak ere aspalditik dauka tarte bat bertsolaritzarako gordeta bere asteroko programazioan. Bestalde, badira leitzarrek argitaratutako zenbait bertso-liburu ere, Iñaki Perurenarena edo Pello Urkiolarena, adibidez.

LEITZAKO BERTSO-ESKOLA

Azkeneko urteotan bertsolaritzaren eta bertsozaletasunaren nolabaiteko berpiztea gertatu dela esan dezakegu. Bertsoan aritzeko elkartzen den jendea dugu alde batetik, baita plazatako saioetan eta txapelketetan parte hartzen ari dena ere, eta, akaso horren bultzadaz edo



Leitzako bertsolari gazteak, 2008an.



Diego Riañok Xalto saria irabazi zuen. Diegoz gainera beste leitzar batzuk ere arituak dira txapelketa horretan.




2011. urteko Xalto saria.



Bertso-desafioa Leitzako gaztetxean. 2010eko ekaina.

ondorioz, bertso saioetara joateko eta bertsoaz jakiteko gogo berpiztua. Euskal Herrian oro har bertsolaritzak izan duen susperraldiak eta duen osasun onak ere lagunduko zuen ziur asko Leitzan ikusi dugun indartze horretan.

Esaten ari garen horren guztiaren islarik argiena Leitzako bertso-eskola dugu. Helduen bertso eskolaz ari gara, eta horri erreparatuko diogu gehienbat, baina gogoratu behar da eskolan aspaldi lantzen ari dela bertsolaritza. Alde batetik eskola orduetan bertan ematen den “bertsolaritza irakaskuntzan” programarekin. Nafarroako Bertsozale Elkartek kudeatzen du programa hori, eskualdeko Euskara Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen dute, eta Erleta eskolako programazioan sartuta dago. 6. mailakoak aritzen dira, hain zuzen ere, eskolan bertsolaritza lantzen.



Luze bi aldiz iritsi zen Nafarroako Txapelketako finalera. Irudian 2008ko finala, Elizondon.

Programa horrekin batera, ikasleekin eskola ordutik kanpo sortutako taldetxo bat ere osatu da azkeneko urteotan, eta behin baino gehiagotan ikusi ditugu Saioa, Joanes, Oier, Beñat, Xabat eta

abar bertsotan, han edo hemen. Aurten, esate baterako, Euskal Herriko Eskolar- teko Bertsolari Txapelketan 2. postuan sailkatu zen Leitzako taldea, Joanes eta Xabat Illaregik eta Oier Altzelaik



Bardoak txapelketa. 2012ko martxoaren 17a.



Bardoak txapelketa. 2012ko martxoaren 31.



Leitzako bertso-eskola 10 lagunetik gora elkartzera iritsi da. Irudian 2008-2009 ikasturteko taldea



Santa Ageda bezpera. 2010eko otsaila.

osatu. Talde horrek elkartzen jarraitzen du 2013-2104 ikasturtean.

Horiek gaztetxoekikoak. Helduen bertso eskolari dagokionez, 2001. urtera joan behar da taldetxoaren sorrera kokatzera. Miel Mari Elozegi *Luzek* bultzatuta, 6-7 laguneko taldetxoa elkartzen hasi zen Aurrera elkartean, *Luze* bera gidari zutela, lehendabiziko urrats batzuk egiten hasteko. Gehienek berehala utzi zuten, baina taldeari eta bertsoegintzari gogor eutsiko zion bikotea gelditu zen, *Luze* bera eta Diego Riaño. Buruz buru biak, etsi gabe, elkartu eta bertsoan aritzen ziren astean behin edo bitan. Diego Riañok Xalto saria irabaziko zuen gero, *Luze* bi aldiz iritsi zen Nafarroako Txapelketako finalera, bertso-paperetan ere sari batzuk lortu zituen...

Aurrerago Unai Elizasu donostiarra eta Iñigo Gorostarzu berastegierra elkartu zitzaizkien, eta lagun hauen

bidez beste bertsolari batzuk ezagutu ahal izan zituzten. Garai hartan bertso-eskolak ez zuen irakaslerik, baina Arkaitz Goikoetxeak, Lekunberrin bizi den oiartzuarrak, asko lagundu zien. Urte horietan zenbait saio egin zituzten, baita herritik kanpo ere, Lesakan, Berastegin... Normalean desafio modukoak izaten ziren, informal samarrak eta giro onekoak betiere.

Zenbait urtez gisa horretan ari ondoren, 2008. urte aldera bertso eskolari beste tankera bat eman eta Bertsozale Elkarteko irakasleren batekin funtzionatzen hasia erabaki zen. Euskara Mankomunitateak euskara zerbitzuaren bidez diru-laguntza eman zuen, eta taldea osatzeko deialdia zabaldu zen. Baita taldetxoa osatu ere, une jakin batean 10 lagun inguru elkartuta. Gizonezkoak ia-ia denak, beste zenbait herritan ez bezala.

Kopurua gerora pixka bat murriztu den arren, bertso-eskola irakasle batekin hasi zenetik —Joxema Leitz bertsolari arbizuarra da saioen gidaria— taldeak lanean jarraitu du eta fruituak ere bista-koak dira. 2012an, adibidez, Nafarroan antolatutako Bardoak dinamikan —urte hartako txapelketaren ordezkoa, nolabait esateagatik—, parte hartu zuten Leitzako bertso-eskolako kideek, horretarako bi talde osatuta. 2014. urterako ere bi talde jarriko ditu Leitzak berriz Bardoak lehiaketan.

BERTSO-ESKOLAREN EKARPENA HERRIARI

Leitzako bertso-eskolaren helburua, jakina, nahi duenari bertsoegintzan trebatzeko aukera ematea da, bertsoen mundua hobeki ezagutzen laguntzea. Baina horretaz gain, herriko bizitzako hainbat momentutan bertsoa txertatzea



Joanes Illarregi, 2013ko pestetako bertso-saioan.



2007ko Pestetako bertso saioa. Irudian Diego Riaño, Luze, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio.



Sagardo Eguna. 2009ko ekaina.



2012ko Leitzako pestetan bertso-eskolak egindako saioa, Aurrerako atarian.

eta bertsoa agertzea ere bada. Esan liteke bertso eskola herriko beste eragile bat dela, eta presente dagoela bere bertsoekin eta egiten dituen lanekin.

Bertso-saioak dira, jakina, eskolaren emaitzetan errazen ikusten dena. Santa eskean egiten dute urtero saioa, Olentzerrori ongi etorria, eta herrian antolatzen diren hainbat ekintzatan ere ikusi izan ditugu, Sagardo Egunean, Atakabeltzako zenbait ekitalditan, edo herrian antolatzen diren festa, omenaldi eta abarretan. Halaber, Nafarroako edo Euskal Herriko txapelketako saioak antolatzen laguntzen dute, eta tarteka bertso-saioak izaten dituzte gure herritik kanpo. Herriko pestak dira, hala ere, bertso-eskolako kideentzat agertokirik garrantzitsuena, orduantxe biltzen baita jende gehien saioak ikustera.

Urteren batean bertako bertso-eskolako kideak izan ditugu plazan egiten

den saioan parte hartzen, Euskal Herriko punta-puntako bertsolariekin batera. Ez da erronka makala izan gure bertsolarietzat. Saioa bera antolatzen edo prestatzen eta gaia jartzen, berriz, urtero-urtero izaten ditugu, haien esku egoten baita pestetako saiorako eginkizun garrantzitsu hori. Leitzako bertso-eskolak lantzen ditu gaiak, denek elkarrekin, eta eskolako kideetako batek —txandaka egiten dute— egiten ditu gai-jartzailearen lanak plazan, jendaurrean. Garai batean Iñaki Zabaletak, Patxi Zabaletak, Iñaki Perurenak eta bestek egindako gai-jartzaile lan hori, gaur egun bertso-eskolako kideek egiten dute.

2013ko pestetako egitarauan, berriz, bertso-eskolarentzat agertzeko modu edo formatu polit bat probatu da, eta ziur aski segida izanen du aurrerantzean. Aurrera elkarteko atarian, arratsaldean, bertso-eskolako kideek bertso-saioa egin

zuten; bai bertsolariak eta bai gai-jartzaileak eskolako partaideak ziren. Plazako saioa baino formatu txikiagokoa zen, neurrikoa, eta ikuslearentzat hurbila eta atsegina. Herriko jendearen aurrean aritzeko parada Leitzako bertsolarietzat.

Horiek denak, beraz, jendaurrean agertzeko bideak eta momentuak dira. Atzetik, jakina, urte osoan zehar eskolan elkarrekin edo norberak egindako lana eta “entrenamendua” dago. Bertso-eskolako kideak urria eta ekaina bitartean elkartzen dira, astean behin, irakasle batek gidatuta bertsoan ikasi eta aritzeko. Inguruko bertso-eskolekin ere harreman ona dute: Berastegi, Larraun, Malerreka... Jarduera irekia da, noski, eta edonork eman dezake izena. Artikulu hau irakurriz inori interesa biztu baldin bazaio, beraz, badauka nora jo. Animo!

Leitzako Dantza Taldea



«Dantza euskal kulturako ekintza garrantzitsu bat da, nor izan garen eta nolakoak izan garen erakusten digu»

Herriko pestetan egiten ditu Leitzako dantza taldeak urteko saiorik jendetsuenak. Ezpatadantza batetik, abuztuaren 11n, eta pesta bigarrenean dantza talde osoak egiten duen saioa, bestetik. Saio horien atzean lan handia dago, urte osoan zehar egin beharrekoa. Eta dantza taldeak, bestalde, historia luzea dauka, jendaurrean dantzatzeko ohitura hori ez baita gaur goizekoa.

Kontu horien gaineko xehetasun eta argibide eske jo dugu dantza taldeko kideengana, eta gure galdera sortari emandako erantzunak ekarri dizkizuegu hona, zuen interesekoak izanen direlakoan. Onintza Bengoetxea eta Joseba Sagastibeltza dira, gaur egungo taldeko



Onintza Bengoetxea eta Joseba Sagastibeltza.

kideen artean, denbora gehien egin dutenak, eta haiek erantzun dituzte gure galdera guztiak.

■ **Hasteko, atzera begiratuko dugu. Noizkoa da Leitzan dantzarien inguruko lehendabiziko berria? Eta zer da hastapenetako garai hartaz dakiguna?**

1900. urte inguruko argazkiak badaude, beraz, oso atzera jo behar da. Gaztetxoek taldea ageri den urte bertsuko argazkiak ere badira. Eta testigantza idatziak ere bai, Hilario Olazaraneke 1926an jasotako musikaren eta dantzaren deskribapena esate baterako. 1931n, Batzokiaren inaugurazioa zela-eta, Ingurutxoaz gainera beste dantza batzuk ere eskaini zirela jasota dago.



Ezpatadantza. 2008. Argazkia: Miel Mari Elozegi.

Ondorengo urteetan ere, ustez behintzat, ezpatadantza ere dantzatzen zuten eta seguruenik baita Batzokiaren inaugurazioan eskainitako dantza haiek ere. Aurrerago, ordea, ahozko testigantza batzuen arabera, Ingurutxo basterik ez zen eskaintzen herritik kanporako emanaldietan.

■ **Ezpatadantza aipatu duzue. Oso dantza berezia eta maitatua da Leitzan, eta hori ere aspaldi dantzatzen da bertan, 1936ko gerra baino lehenagotik. Nondik etorri zen hona, nola hasi zen hemen dantzatzen?**

Leitzako Batzokia inauguratu zenean, 1931. urtean, 13 dantzari aritu omen ziren dantza ezberdinak dantzatzen: Irineo Recaldek aurreko urtetik erakutsiz, Isidro Frances, kapitan; Tomas Erbiti; Roman Zestau; Ignacio Eraso; Miguel Iturrarte; Jose Miguel Canflanca; Ramon Villabona; Pedro R. Elizegi; Marcos Ariztimuño; Jose Miguel Zabaleta; Jose Joaquin Sukuntza; Antonio Lakuntza; Santiago Usabiaga; irrintzilaria Jose Joaquin Sukuntza; txistulari Angel Anduntzin; eta atabala Claudio Azpiroz. Tartean ezpatadantza aipatzen da baina, gure ustez, ezpatadantza hura Gipuzkoakoa izanen zen.

Ustez Patxi Ripak erakutsi zuen Leitzan gaurko egunera ailegatu den ezpatadantza. Lehenbiziko aldiz 1933an

dantzatu omen zen, eta jatorriz bizkaitarra da, Durangaldekoa. Iurretako dantzariak *dantzari dantzari* buruz argitaratutako liburuan dioenez, Humboldt-ek idatzi zuen inguru haietan —Durangaldean, alegia— 1801ean dantzatzen zela. Berrizko dantza maisu Alejandro Aldekoari aditu izan diogu Berrizen idatzitako lehen testigantza 1615ekoa dela, eta Ptolomeok duela 2.000 urte inguru idatzi zuen euskaldunak banan-banan zein taldeka dantzan aritzen zirela, hanka nork jaso gorago. Segur aski ere orduan ez zen *dantzari dantza* izanen baina...

«Leitzara Ezpatadantza etorri zenetik 70 urte pasa direnean ezin esan dezakegu dantza aldatu ez denik»

Durangaldeko herrietako ermiten aurrean dantzatzen zen pestak zirenean. II. Errepublikaren garaian dantza taldeak sortu ziren eta talde horiek *dantzari dantza* estilizatu egin zuten, haren

naturaltasuna eta esentzia galduz. Txalekoa desagertu egin zen. Garai hartan, bestalde, Eibarren *dantzari dantza* txapelketa bat egin zen, eta nahiz eta bertan Durangaldeko bi talde izan, jatorrizko *puntapijo* modura hanka altxatuz-eta, epai-mahaikoei erakargarriago iruditu zitzaizkien Bilboko gazte galantak, maukak bilduta eta hanka ballet modura altxatuz, eta haiek irabazi zuten.

Horrek ekarri zuen hiriko dantzatzeko era hori egokiagoa iruditzea eta inguru guzietara dantza era hori zabaltzea. Dantza era horixe izan zen Leitzara ailegatu zena eta gaur egun arte mantendu dena. Ondoren, jatorrizko *dantzari dantza* berrindartzen hasi zen, eta ia Euskal Herriko bazter guzietara ailegatua zen dantza era “ez jatorrizko hura” alde batera utzi zen.

Baina Leitzarrak bereziak izaki, hona ailegatu zen bezala mantendu eta halaxe dantzatzen da gaur arte.

■ **Orduko forma horri eutsi zaio hemen, beraz, baina denborarekin aldatu ere egingen zen ezpatadantza dantzatzeko modua, akaso?**

Dantza bat aldatu ez dela esatea oso zaila da, eta dantza ez aldatzea ere oso zaila da. Nahiz eta jatorrizko dantza era mantentzen eta erakusten saiatu, dantzari bakoitzak bere ñabardurak ditu. Hortaz, erakusteko modua ere irakasle bakoitzak berea du. Irakaslea aldatzeak ekar dezake dantza bat, nahiz bere oinarrian ez, ñabarduretan aldatzea. Eta aldaketa hori urte gutxi batzuetan ez guke nabaritu baina Leitzara Ezpatadantza etorri zenetik 70 urte pasa direnean ezin esan dezakegu dantza aldatu ez denik. Egitura bera da, *dantzari dantza* dantzatzen den musika eta ezpatadantzan dantzatzen dena berdina dira. Leku aldaketak berdina dira eta dantzatzen diren zatiak berdina dira, nahiz eta *dantzari dantzako* zati bat ezpatadantzan ez dugun egiten. Baina ñabardurak agerikoak dira.



Ingurutxoak. 2008ko pestak. Argazkia: Miel Mari Elozegi.

Honen harira, adibide ona Leitza-ko Ingurutxoak dugu. Olazaran apezak 1926an Leitza etorri eta Ingurutxoari buruzko liburua idatzi zuen eta, ikus daitekeenez, gaur egun dantza pausak ez ditugu egiten Olazaranek liburu hartan azaltzen zituen bezala. Oinarri bera dute, baina ñabardura ezberdinak dituzte bi garaietakoek. 2004an pestetan egindako Ingurutxoarekin (Olazaranen liburukoaren interpretazioa egin genuen egun hartan), gaur egungo edo aurreko urteko Ingurutxoak alderatuz gero, nabaritu da ez direla berdinak. Berdintsuak bai, baino ez berdin-berdinak.

Esan daiteke, aurreko mende hasierako bideoak ikusita, azken 60-70-80 urteetan eta gehienbat Gipuzkoatik bultzatuta, jatorrizko euskaldunen dantza era “basatia” estilizatu egin dela, hau da, balletizatu egin dela. Gorputz tenteak bularra atereaz, hankak zuzen-zuzen, puntetan... Dantza era hori ez zen 1900 eta lehenago Euskal Herriko plazetan ikusten baina gaur egun indartuen dagoen era da. Tradiziozkoa? Izen horren pean agertu beharrekoa? Hortxe denontzako galderak.

Dantza estilizatzeko hori Gipuzkoatik inguru guztietara kutsatu zen eta da, eta gure dantzatzeko eran ere nabaritzen dela esango genuke.

■ **Garai bateko dantza taldeak eta dantzariak aritu gara lehenago. Gora-beherak izanzen zituen horrek, noski, baina gaur egun badugu talde sendoa Leitza. Oraingo dantza talde hau noiz sortu zen? Nork bultzatu zuen, nola...?**

Dantza taldea, guk dakigula, izen eta guzi —Aurrera dantza taldea— 1947an sortu zen. Andres Irisarri —Leitza maisu zegoen—, Jose Urdanpilleta —Tolosako albaitea— eta Jose As-tibia botikaria izan ziren, besteak beste, sortzaileak.

Aipatutako horiek, Leitza dantzari asko zirela ikusita, talde ofiziala bihurtzea erabaki zuten. Taldea sortutakoan erakustun bat behar eta Luis Erbiti jarri zen lan horretan.

Ingurutxoak eta ezpatadantza dantzatzen zituzten, herrian eta baita kanpoan ere, eta gerora dantza berriak ikasten eta eskaintzen hasi ziren. Irakasle

asko pasa dira dantza taldeak. Herriko dantza zaletasunak mantendu du gaur arte taldea. Ondoren sartu edo sortu ziren gainontzako taldeak Aurreraren barrenean.

■ **Eta nolako da dantza taldea? Dantzarien adina, antolaketa, egutegia, entsaioak...**

Bi taldetan banatu dezakegu dantza taldea: itikiak eta handiak, edo gazteak eta helduak. Gazteen entsaioak, arropak, klaseak eta antolaketa orokorrean guk biok eramaten ditugu. Entsaioak, klase garaian, astean egun batean egiten ditugu, ordu bate – ordu eta erdiko saioa izaten da; udan, ekainaren bukaera aldetik pestak arte, egunero ordu bate edo ordu eta erdi.

Bestalde, helduen taldean bost kideko batzorde bat daukagu, eta bost horien artean antolatzen da gehiena, nahiz beste batzuek ere parte hartzen duten. Entsaioak ekitaldiaren arabera egiten ditugu, baina normalen gazteek bezalatsuko maiztasunez egiten ditugu. Noski, ekitaldiaren bat hurbil baldin badugu, entsaioak ugaritu egiten ditugu.



■ **Dantzak ikasteko, berriz, beti izanen zen Leitzan bertan gainerakoei dantzak erakutsiko zizkien norbait, eta orain zuek egiten duzue hori. Hemengoek ere, ordea, nonbaitetik ikasi beharko zenuten. Nora jo izan duzue dantza berriak ikasteko? Eta nola erabakitzen duzue zein dantza mota ikasi nahi duzuen?**

Dantza taldeak hainbat irakasle izan ditu bere hasieratik, pentsatzekoa da haien esku gelditzen zela dantza berriak ikastea. Sorotarrak esan bezala, hasieran Luis Erbiti izan zen irakasle, Angel Alduntzin txistularia ere ibili zen, eta ondoren beste hainbat eta hainbat. Denak aipatzea ezinezkoa da baina aipamenik gabe ezin utzi gure irakasle izan zen *Pitulari*. Gu biak berarekin hasi ginen eta berak dantza talde handiko zenbait kide izan zituen laguntzaile. Geroago, Maitek eta Soniak dantza talde ttikiaren ardura utzi zuten eta erakuslerik gabe gelditu zen. Xabier Arraras, Nerea Saralegi eta gu biak hasi ginen talde gazte bat hartuta. Garai hartan talde handian ginen eta geroztik hala segitu dugu. Nahiz Nereak eta Xabik jada utzia daukaten.

Gure garaian eta baita lehenagotik ere, dantza berrien iturria Jose Luis Vallejo, "Gipuz", izan da. Beti guregana etortzeko prest, dantza berrien erakusle,

aholkulari, laguntzaile, hainbat material utzita... beti lagun, eta trukean deus eskatu gabe.

Gaur egun Internetetik asko tiratzen dugu, baina horrek bere arriskua du. Iturriak ongi hautatu behar dira. Iturri oparo eta ziur bat, orain 9 urte Leitzara etorritako Andra Mari dantza taldeak daukan webgunea eta youtuben jartzen dituzten bideoak dira. Talde horrek, Kepa Artetxe dantza maisua kide duela, gure herrialdeko hainbat dantza berreskuratu, interpretatu eta gorde eta mantendu ditu. Eta hori guzia denon eskuragarri daukate, lehen aipatu bezala. Bai Keparekin eta bai haren suhi Mikel Goitiarekin harreman ona daukagu, dantza ikastaroak ere eskaini dizkigute eta eskainiko dizkiguten esperantza harremanetan jarraitzen dugu. Kepa dioen bezala, berari irakatsi zioten bezala irakasten du hark.

■ **Leitzan ezagutzen duguna, gehienbat, urtero pestetan egiten dituzuen emanaldiak dira, baina horretaz gain zein da zuen martxa?**

Gure ekitaldi garrantzitsuena pestetakoa da, bai. Umeen egunean ttikien saioa, ingurutxo irekia, San Tiburtzio-ko ezpatadantza eta pesta bigarreneko saioak izaten dira ofizialki eskaintzen ditugunak, San Juan bezperako umeen

ingurutxoarekin batera. Aurreraren egunean ere badira urte batzuk gure lantxoak aurkeztzen dugula. Eta hainbatetan kultur aroaren barrenean ere saioak eskaini izan ditugu. Ekitaldi horretan dantza tradizionalak dantzatzeko ditugu orokorrean. Bestalde, eguberrietan beste emanaldi bat egiten dugu, Orantzaroren etorreran. Neguan astean behin elkartzen saiatzen gara eta, lehenago aipatu bezala, udan egunero. Aurten dantzari ttikiekin Faltzesera joan ginen eta helduok Arruizko pestetan egin genuen beste saio bat. Helduen taldeko mutilak ere Baluarten izan ziren dantzatzeko Angel Mariezkurrenak prestatutako euskal kontzertu batean eta azken ekitaldia Aldatzen eskaini dugu.

■ **Ederra da urtean zehar egiten dituzuen dantza-erakustaldi horiek ikustea, baita bertan dantzatzea ere ziur asko, baina horrek atzetik lan handia eta nolabaiteko sakrifizioa ere badu. Zergatik da garrantzitsua, eta zergatik da beharrezkoa edo gutxienez interesgarria herriandantzaren talde bat izatea?**

Ez dakigu garrantzitsua den, baina guri horixe gustatzen zaigu eta ez litzazuke gustatuko galtzea. Beste kirol bat egitea bezala izan daiteke, eta herriari bizia ematen dio.

Gu tradiziozko dantzak ikasten eta eskaintzen saiatzen gara pestetan, gure ohiturak zein izan ziren eta zein diren agertuz. Dantza euskal kulturako ekin-tza garrantzitsu bat da, nor izan garen eta nolakoak izan garen erakusten digu, eta gu horren guztiaren transmisore izateak asko betetzen gaitu. Horregatik, lehen aipatu bezala, oso garrantzitsua da iturria zein den jakitea eta ahalegin guztia jartzea guri erakutsi zigun iturri on horrek bezala egiten, behintzat tradizioaz ari garenean.

Egia da, baita ere, tartean-tartean eta azkenaldian eguberrietan, tradiziozko dantzetatik aparte, nolabaiteko dantza

moldaketak egin ditugula. Kasu horretan ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu, nahiz moldaketa izan, oinarrian tradiziozko dantza pausuekin prestatutako moldaketa izatea, oinarria ongi eta zuzen mantentzea. Askotan ikusleak presentziari ematen dio garrantzia, baina oinarria ongi landua ez badago, gure iritzian ez da balekoa. Gutxienez jakin behar da oinarri hori zein den eta hala mantentzeko ahalegina egin. Eta horrekin lotuta, esan behar ez dela dantzari hobe hanka gehien altxatzen duena, baizik pausuak hobekien marcatzen dituen.

■ **Tradizioa aipatu duzue. Hemen ez da gertatu, baina beste zenbait herritan eztabaida sortu da emakumezkoek zenbait ikuskizunetan normal parte hartu nahi eta tradizioaren izenean eragotzi zaienean. Goizuetan gertatu zen inauterietan, eta gero guztiz normalizatu da. Hortxe daude Irun eta Hondarribiko gatazkak, bizi-bizirik, eta azkenaldi honetan, konparaziora, Baztango mutil dantzaren inguruan gertatutakoa. Hemen ere jende dezenteri entzun diogu neskak ere ezpatadantzan dantzatzen ikusi nahiko lituzkeela. Nola ikusten duzue hori? Hitz egin al du horren inguruan dantza taldeak inoiz?**

Askotan aipatu dugun gauza bat izan da, batez ere nesken artean, guri ere dantzatzea gustatuko litzaigukeela, baina horretan gelditzen da, komentarioan. Ez dakigu hanka altxatze horrek atzera botatzen gaituen, edo plazako errespetuak... Niri neroniri izugarri gustatuko litzaidake plazan ezpatadantza dantzatzea, baina zaila ikusten dut. Ez jendearengatik, batzuei gustatuko zaie beste batzuei ez..., baina aurrera ateratzea zaila iruditzen zait.

Neskok ikasten hainbat saio ere egin izan ditugu, taldean ez dut uste inolako kontrako pentsamendurik izan litzaitekeenik, alderantziz; baina hori kanpo-

tik bultzatua baino gehiago, norberari atera beharreko kontua dela iruditzen zait. Neska edo mutila den ahaztu eta nahi duenak lan egin, orain arteko kide berriek ere lanaren arabera egin dute lekua. Aurten Tolosan gertatu dena erdugarri iruditzen zaigu. Gogoia zuenak San Juan eguneko dantza entsaiotara azaldu eta bertan, generoa alde batera utzita, dantzari beren lana egin dute; ondoren, aukeraketa egiten duenak, dantzariak aukeratu ditu, generoa kontuan hartu gabe, eta ekainaren 24an goizez neska-mutilek dantzatu zuten aurten arte mutilek bakarrik dantzatu izan duten dantza.

■ **Dantza ariketa fisikoa ere bada, eta bistakoa da dantzariak ere momenturen batean erreleboa behar izaten dutela. Harrobirik ba al dugu Leitza, eta zer egin liteke harrobi eta errelebo hori ziurtatzeko? Nola ikusten duzue etorkizuna?**

«Gu tradiziozko dantzak ikasten eta eskaintzen saiatzen gara pestetan, gure ohiturak zein izan ziren eta zein diren agertuz»

Harrobia izaten saiatzen gara. Eskolako umeei jardueraz kanpoko ekin-tzetan dantza badute beren aukeretan, institutuan sartzen direnean gurekin hasten dira entsaiatzen... Egia esan jende faltarik ez da. Orokorrean mutilak gutxiago izaten dira baina orain arte ez dugu arazorik izan taldea osatzeko. Ez dakigu zergatik baina nesketan ez da

arazorik izaten. Betidanik dantzarako afizio handia izan da Leitza, gazte-txok erreferentek bilatzen dituzte eta dantzariak egoteak gazteak horretara zuzentzen laguntzen du.

Aldi berean, Leitza oso eskertua da bertako jendeak egiten dituen gauzekin, horrek guri gure "lana" seriotasun handiagoz egitea exijitzen digu, eta aukera gehiago ematen ditu gauza erakargarriagoak egiteko: atzerrian dantza egiteko bidaiak, Euskal Herrian barrena ibiltzea, eta abar. Eta horrek erakargarriagoa egiten du. Esan daiteke autoelikatzen den ziklo bat dela.

Dudarik ez dena, dantza talde handia talde ttikitik elikatzen da, eta ttikia mantentzen den bitartean etorkizuna izanen du dantza taldeak. Talde ttikia gure ardurapean dago eta akaso hauspo berri bat beharko luke, taldeak berak ekitaldi gehiago egiteko herritik kanpo. Gu halako irteeretarako grina handirik gabe gaude eta horrek bere bilakaera mugatu dezake.

Talde handian, berriz, udaz aparteko sasoiaren entsaiotarako biltzeko zailtasun handiagorekin aritzen gara, eta horrek udaberri-uda hasierako ekitaldietarako mugak jartzen dizkigu. Esan liteke gure denboraldia herriko pestetarako prestatzen dugula.

Esan behar, bestalde, ibili garen talde guztietan gora-beherako zikloak bizitzen direla. Dantza taldearen kasuan ere berdin esan dezakegu. Txekiar Errepublikako aurreneko bisitaren aurretik oso momentu onak izan genituen, ekintza asko egin eta jende asko aritu ginen lanean. Baina gorakada horrek atzetik beherakada ekarri zuen. Oso zaila da goiko puntu horretan mantentzea, jende helduak utzi egin zuen, gazte talde oso polita sartu zen talde handian eta, nahiz eta beherakada izan, nolabait ere nahikoa goian mantentzea lortu genuen. Esan liteke iaz berriz oso gora egin genuela, eta ea behera gehiegi egin gabe mantentzen garen.

Petra Azpiroz leitzarra

Nafarroako ikastolen mugimenduko aitzindaria

Gaur ezagutzen dugun ikastolen mugimendua 1960. hamarkadan loratu eta lehertu zen, frankismoa oraindik bizi-bizirik zegoela. Ikastolen mugimenduaren aurrekariak edo lehendabiziko urratsak, ordea, lehenago bilatu behar ditugu, XX. mendeko lehendabiziko hamarkadetan. Euskal Herriko lehendabiziko ikastolatzat jotzen dena 1914an abiatu zen Donostian, eta Nafarroako lehendabiziko aurrekariak 30. hamarkadakoak dira. Iruñean 1931ean, Lizarran 1932an eta Elizondon 1935ean sortu ziren ikastolatzat har litezkeen lehendabizikoak. Eta hor, Lizarrakoan hain zuzen ere, leitzar bat dugu protagonista: Petra Azpiroz, hain zuzen ere. 1916an jaio zen Petra Azpiroz Leitzañan, —Etxeberrikoa zen— eta 2001ean hil zen Iruñean. Txikitik Leitzañan hazi eta bizi zen, baina gazte samar ateratzen herriko, ikasketak eta lana zirela eta.



LIZARRAKO IKASTOLARA JOATEKO DEIA

Petrak 17 urte besterik ez zituen Lizarrako ikastolako irakasle izateko deitu ziotenean. Gaztea zen oso, beraz, eta gaitetasunak ematen duen ausardia horrekin

joan zen erdarak ia osoki janda zeukan ingurura euskara eramatera. Gogoan izan behar dugu orduko Lizarran toki-izenek argi eta garbi erakusten zutela euskara bertako hizkuntza zela, eta abertzaletasunak bazuela nolabaiteko tamaina. Euskararik ez zen batere erabiltzen eta entzuten inon, ordea, eta euskararen oroimen historikoa oso eskasa zen.

Irakasle-ikasketak bukatu ondoren, beraz, Gipuzkoan irakasle izateko opo-saketa prestatzen ari zen Petra, eta orduantxe jaso zuen Eusko Ikaskuntzaren deia. Lizarran “escuela vasca” delakoa antolatzeke lanean ari ziren eta irakaslea behar zuten haurren hezkuntzaz ardu-

ratzeko. Petrari deitu zioten, eta hark baietz esan.

Proiektua, beraz, Lizarrako ikastola hura, bertakoek bultzatua zen. 1932. urtean 120 herritarrek baino gehiagok Euskal Eskola bat sortzeko idatzia sinatu zuten —sinatzaileen artean Jose Maria Lakarra historialari ezaguna eta Lizarrako alkate izanen zen Fortunato Agirre—. Ideia egitasmo bihurtu zen. Herriko elkarte batzuek, Eusko Ikaskuntzak, zenbait udal ordezkariak eta turismo sindikatuak parte hartu zuten egitasmo horretan, eta 1932. urtean abiatu zen, Lizarrako Foruen Plazan, haurren ardura irakasle leitzarren esku utzita.

LIZARRAKO IKASTOLAN EGINDAKO IBILBIDEA

Petra Azpiroz Lizarrako ikastolan lanean hasi zenean, jakina, ez zuen eskarmen-turik. Ikasketak bukatu berriak, egiteko berri batean ariko zen aurrerantzean. Egiteko berria zen, alde batetik, bera berria zelako lanbidean, baina baita beste alde batetik ere, ordura arteko irakaskuntzan gaztelania baitzen nagusi, eta euskara irakaskuntzan txertatzeko esperientzia oso eskasa zelako Euskal Herri osoan. Irudimena eta lana jarri beharko zituen, beraz, erronkari aurre egiteko. Lizarrara joan baino lehen 1931n sortutako Iruñeko ikastolan bildu zituen zenbait aholku, irizpide eta informazio pixka bat.

Ausarta izan zen Petra, zalantzarik gabe, eta egindako lana ere aitortu izan zaio, 2010. urtean eman zioten Manuel Irujo Sariaren bidez esate baterako. Leitzarraren ikasle izandako batzuek gogoratzen dute orduan erabiltzen zen metodologia, eta garai hartarako irekia eta berritzailea ere bazela aipatzen dute gaia aztertu dutenek, Ricardo Galdeanok (ikastolako ikasle ohia) eta Peio Etxanizek (ikastolako irakaslea), adibidez. Ikastetxe mistoa zen Lizarrako lehen-dabiziko ikastola hura, neska-mutilak hartzen zituen, eta modernoa. Petrak musika eta kanta erabiltzen zituen etxetik erdaldun etortzen zitzaizkion haur haiei euskara erakusteko. 80 urte geroago, haren ikasle izandako batzuk kanta haiek gogoratu eta kantatzen ziztuzten.

Ikasle gutxirekin hasi zen Petra Lizarrako ikastolan lanean (iturri batzuek 4 diote, beste batzuek 12), eta laster iritsi zen 40 izatera. Bada zer-bait, garai haietarako! Zoritarrez, ikastolak ez zuen oso ibilbide luzea egin, 1936ko altxamendu faxistak hegoak ebaki baitzizkion hegan hasi nahi zuen egitasmo hari.



Garai hartako irudi bat.

BIDE BATEN ETEN BORTITZA

1936an altxamendua gertatu eta gerra lehertu zen. Euskal Herria ere bete-bete harrapatu zuen, eta ondorioak berehala nabaritu ziren. Horietako bat, Lizarrako ikastola, Petraren ikastola, ixtea eta bertako liburu guztiak kalean erretzea, denen bistan. Orduan bizi zen giroa ederki erakusten du Lizarrako komandante militarrek emandako bando ezagunak. "Separatistak" ziren objektuak, jantziak, liburuak, argazkiak... agintariei entregatu beharra agintzen zuen, txistua bera ere debekatzen zuen, edo "agur" esatea... Horrekin batera, "escuela vasca" delako hark, ikastolak alegia, zituen liburu eta gauza guztiak ere entregatu egin behar ziren.


Giro itogarri hartan, beraz, ikastola itxi zuten, ondasunak kendu zizkieten eta ikasleekin batera beste eskola batzuetara eraman zituzten. Petra lanik

gabe utzi zuten, "persona indeseable" eta "non grata" izendapena ere eman zioten, eta irakasle lanean jarraitzea galarazi zioten, bai alor publikoan bai pribatuan. 21 urte zituen orduan, eta ez zuen aurrerantzean Petrak irakasle lanik inoiz eginen. Petra Azpirozen familiak kontatzen duenez, ikastola itxi eta urte asko pasa ondoren ere, esperientzia hura oroitzean malenkonia nabaritzen zitzaion aurpegian.

PETRAREN EKARRIA

Petra izan zen Lizarran lehen-dabiziko urrats zail haiek eman zituena. Bere adorea eta gaitasuna jarri zituen lan hartan, eta ereindako hazi hura izan zen 1970ko hamarkadan berriz sortuko zen Lizarrako ikastolan agertuko zena. Eten bat izan zen tartean, gogorra eta luzea, baina Lizarran oraindik ere gogoan dute emakume leitzar honek egindako ekarpena.

Garai hartan egindako aha-legin horren isla da, hain zuen ere, eta aha-legin horrekiko esker onaren isla, Lizarran argitaratu duten DVDa. 1932an abiatutako ikastola hura da kontakizunaren ardatza, eta Petra protagonistetako bat. DVDa Leitzako liburutegian bertan kontsulta daiteke, eta bideoa Interneteko helbide honetan ere ikus daiteke: <http://vimeo.com/11615939>



Euskal eskolako erreziboa.

Leitzak 20 urte UEMAn

(Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea)

Hogei urte joan dira, dagoeneko, Leitzako Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu zenetik. Gauza asko gertatu dira ordutik hona, eta horietako bat da euskarak aurrera egin duela, oso nabarmen, Leitzako Udalaren lanean eta eguneroko funtzionamenduan. Ezin esan 1993an hutsetik hasi zenik, baina UEMAn sartzeko erabakiak bultzada argia eman zion euskaraz aritzeko eta bizitzeko erabakia-ri, eta fruituak gaur egun ikus daitezke.

UEMAREN HELBURUA

UEMAri buruz hitz egin behar badugu, ongi etorriko da Mankomunitatearen helburuak zein diren gogoratzea. Gure herrietan euskara bultzatzea da UEMAREN helburua, bistakoa denez, baina pixka bat zehatzago ere jaso daitezke helburu horiek. Honelaxe daude jasota UEMAREN webgunean bertan:

1. Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
2. Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.
3. Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA. HISTORIA PIXKA BAT

Udalerri Euskaldunen Mugimendua 1988an abiatu zen, Euskal Herrian Euskarazek udaletan aurkeztutako mozioarekin batera. Mozio hark herri euskaldunetako udaletan euskara hutsez funtzionatzea proposatzen zuen, hain zuzen ere. Euskal Herriko 32 udalek onartu zuten mozio hura eta “Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udala Arautegia” onartu zuten, bertako administrazioetan eta udalerrietan euskaraz bizitzeko birtartekoak jartzeko asmoz.

Mugimendua abiatuta zegoen, hortaz, eta berehala ohartu ziren udal haiek aurrera egin ahal izateko beren arteko koordinazioa beharrezkoa izanzen zela. Hartara jarri eta elkartzen hasi ziren mozioa onartu zuten udaletako batzuk, ez denak. Koordinazioaz gain laguntza teknikoa eta juridikoa ere beharko zuten, eta EKBk eskaini zien hori, horretarako

propio “Birreuskalduntzearen Planifikazioarako zerbitzua-BPZ” sortuz.

Hasieran “Udalerri elebakarrak” ziren mugimendua osatu zutenak, izen horrekin. Laster, ordea, “Udalerri euskaldunak” izanen ziren. Izena aldatu zen —ez izana— “elebakar” hitzarekin irakurketa okerrak eta nahasmena sor zitezkeelako. Udalerri euskaldunen mugimendua izanen zen aurrerantzean.

Hurrengo urratsa Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortzea eta Mankomunitatearen Estatutuak onartzea izan zen. 1991ko maiatzaren 5ean erabaki zen, Aizarnazabalen, UEMA osatzea, eta 1992ko apirilean erregistratu zen Administrazio Publikorako Ministerioan.

Mankomunitatea sortzeko erabakiaren bitartez mugimenduari izaera juridikoa eman zitzaion. 17 udalek osatu zuten hasiera hartan Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Mugimendua zena, nolabait esateko, erakunde (ere) bihurtu zen. Hasierako 17 herri haiek txikiak



UEMAren III. jardunaldiak. Leitza.



UEMAk 1998an osasun zerbitzuen inguruan emandako prentsaurrekoa.



Herriko hizkuntza paisaia euskalduna da gaur egun.

ziren eta ez zuten baliabide handirik, eta UEMAK berak lagundu ziren, hortaz, bidea aurrera egiten. Berehala hasi zen, ordea, UEMA bere bidea zabaltzen eta udalerrri gehiago biltzen. Leitza eta Goizueta, esate baterako, Mankomunitatea sortu eta bi urte geroago sartu ziren erakundean, lehendik sartuta zeudenekin bat eginez.

1991n hasitako bide horretan arazo administratiboak eta trabak laster iritsi ziren, 1995ean Epaitegi Gorenak UEMAren estatutuak ez legekotzat jo zituelako. Estatutuak egokitu egin zituen Mankomunitateak, betiere bere helburuei, funtzionamenduari eta lanari eutsiz, azken batean mugimenduaren hasierako bideari eutsiz. Garbi zuten UEMA osatu zuten udal haiek oztopoak oztopo beren bidean aurrera egin beharko zutela, eta ez zutela helegiteek eta epaiek euskaraz

Hasierako UEMA hura 17 udalek osatu zuten. Bada, gaur egun 71 udal daude Mankomunitatean sartuta

funtzionatzeko eta bizitzeko erabakia nolanahi hustuko.

22 urteko ibilbidean lan handia egin da eta emaitzak ere bistakoak dira. Egunez egun aldaketak ikustea zailagoa den arren, aski izanen litzateke hasiera hartako panoramari begiratu bat ematea eta oraingoarekin alderatzea: udaletako eta herrietako hizkuntza paisaia (kartelak, errotuluak, irudiak...), udaletako

dokumentazioa (inprimakiak, aktak, txostenak...), herritarrekiko eta administrazioekiko komunikazioak, eta abar. Guztietan ere aurrera egin da, eta kasu askotan oso modu nabarmenean. Euskaraz, azken batean, zerbitzu-hizkuntza bihurtu da, normal-normal ematen da euskarazko zerbitzua, eta ohiko lan-hizkuntza da. Alegia, UEMako udalerrietako udal-langileek euskaraz egiten dute lana. Ez % 100ean, bistan da, erdarak bere tokia bai baitu oraindik ere. Udal hauek ez dira burbuila batean bizi, kanpoko administrazioekin eta eragileekin ere badituzte harremanak, eta horrek gaztelaniari sarbidea ematen dio. Baina udal hauen guztien lan eta zerbitzu hizkuntza nagusia euskaraz da gaur egun, oso portzentaje handian, eta hori ez zen horrela duela 25 urte. UEMAK zerikusi handia dauka horretan.



UEMA Eguna Leitzan. 1994ko maiatzaren 22a.

Hasierako UEMA hura 17 udalek osatu zutela esan dugu lehentxeago. Bada, gaur egun 71 udal daude Mankomunitatean sartuta. 22 urteko ibilbidean haziz joan da, gero eta udalerrri gehiago bilduz, eta hasierako herri txikiez gain askoz handiagoak direnak ere erakarriz (Zarautz, Azpeitia, Oiartzun, Ondarroa, Bergara, Tolosa, Bermeo, Lekeitio, Bera, Baztan...).

Duela pare bat urte, 20. urtemugarekin batera, UEMAk berak bere ibilbidearen azterketa kritikoa eta balantzea egin zuen. Zertan asmatu den eta zertan ez aztertu ondoren, ibilbide berriari ekin zion. Hasierako filosofiari uko egin gabe, egoera berrira eta Mankomunitatearen osaketa eta ezaugarri berrietara egokitu behar zela ikusi zen. Mankomunitateak eskaintzen zituen zerbitzuei eutsi zaie, baina lurgune euskaldunak euskararentzat duten funtzio estrategikoari garrantzia eman eta lurgune eus-

Euskara udalaren ohiko hizkuntza bihurtu da, normaltasunez erabiltzen da euskara udalaren funtzionamenduan

kalduna osatzeko ideia berrindartu nahi da. Arnasguneak behar ditu euskarak, eta euskararen arnasgune diren herriek osatzen dute UEMA.

LEITZA UEMAN: 20 URTEKO IBILBIDEA

Leitzako Udala 1993an sartu zen UEMAn. Batzarrak aldeko erabakia hartu zuen EArek eta HBren aldeko botoekin, eta La Milagrosa udal taldeak aurkako botoa eman zuen. Lehendik ere herrian eta udalean euskara nor-

malizatzeke lana hasita zegoen, jakina, ez baitzen hura bidean emandako lehendabiziko urratsa izan. Leitzako Udalean euskara izan zen ahozko hizkuntza askozaz lehenagotik, eta idatziz ere erabiltzen hasita zegoen. Euskara zerbitzua ere, esate baterako, udalak euskararen aldeko lana egiteko sortutako tresna, 1990. urtean osatu eta hasi zen lanean gure eskualdean.

Baina, zalantzarik gabe, lehendik hasitako bide horretan, UEMAn sartzea erabaki eta urrats garrantzitsua izan zen. Leitzako Udalak UEMArek estatutuak onartu zituen, baita euskararen udal ordenantza ere, eta horiekin batera UEMArek helburuak eta filosofia: euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bihurtu behar zen udalean, euskaraz funtzionatzera iritsi behar zen, eta udalerriko bizitza soziala euskalduntzeko lana egin behar zen udaletik bertatik ere. Eta horretarako, Euskal Herriko beste

hainbat herri euskaldunekin bat egin zuen Leitzak, UEMAn elkartuta.

UEMA sartu eta hurrengo urtean, 1994ko maiatzaren 22an hain zuzen ere, UEMAREN eguna ospatu zen Leitzan bertan, urte hartako kultur astearen programazioaren barruan. Ekitaldi instituzional bat egin zen udaletxean, eta UEMAKO ordezkariak gainera bertan izan ziren Eusko Alderdi Jeltzalea (Jose Luis Etxegarai), Eusko Alkartasuna (Karlos Garaikoetxea) eta Herri Batasuna (Joseba Alvarez) alderdi politikoetako ordezkariak. Ekitaldi horretan hiru alderdiek UEMA bultzatu eta babesteko konpromisoa hartu zuten.

Leitzako Udalak, bestalde, UEMAKO kide denez, beti izan ditu ordezkariak Mankomunitatearen batzarrean, baita zenbaitetan zuzendaritzan ere. Eta horretaz gain, Mikel Illarregi Leitzako alkate izan zenean UEMAKO lehendakari ere izan zen. 1995eko urriaren 29an egindako batzarrean izendatu zuten Mikel Mankomunitatearen buru, eta ardura hori lau urtez bete zuen.

Horretaz gain, UEMAK bere ibilbidean zehar antolatu dituen jardunaldiak, "Udalerrri Euskaldunen III. Jardunaldiak", Leitzan egin ziren, 1996ko azaroaren 30ean.

Leitzak, ikusten denez, hastapen-hastapenetatik oso parte-hartze aktiboa izan du UEMAREN barruan. UEMAREN Eguna egin zen bertan, baita III. Jardunaldiak ere, Leitzako alkatea Mankomunitateko lehendakaria izan zen..., eta geroztik ere UEMAREN makina bat bilera egin da hemen, eta prentsaurreko, deialdi eta ekimen askotan parte hartu du gure herriak.

Baina barrura begirako lana izan da, alegia, herrira begirako lana, UEMAN sartuz geroztik ahalegin handiena eskatu duena. UEMAREN helburuekin bat egiteko urrats asko eman da herrian, eta gauza asko hobetu da: hizkuntza paisaia euskaldundu da (errotulazioa, seinaleak, zigiluak... eta oro har kanpora begirako



UEMA Eguneko ekitaldia plazan.



UEMAREN III. Jardunaldiak. 1996ko azaroa. Leitza.

edozein elementu eta herriaren irudia); barne harremanetan euskararen erabilera normalizatuta dago: ahoz eta idatziz euskaraz egiten da, eta garai batean gaztelaniaz egiten ziren inprimaki, dokumentu eta agiri asko eta asko euskaraz daude orain; kanpo harremanetan ere urrats asko egin da, eta herritarrekiko harremanetan ohiko hizkuntza euskara da, esate baterako; udal langile guztiak euskaldunak dira eta haien lana euskaraz egiteko gai dira...

Azken batean, euskara udalaren ohiko hizkuntza bihurtu da, normaltasunez erabiltzen da euskara udalaren funtzionamenduan. Horrek, jakina, ez du esan

nahi zailtasunik eta hutsunerik ez dagoenik. Badaude, arlo jakin batzuetan batez ere: Nafarroako Gobernuaren administrazioarekiko harremanetan, hirigintza arloan... Horietan gaztelaniak sarbide handia dauka, eta euskarak ate batzuk nahikoa itxita dauzka oraingoz.

Oro har, nolana ere, eta egiteko bide dezente gelditzen den arren, Leitzako Udala UEMAN sartu zen urte hartatik hona aldaketa handia gertatu dela bistakoa da, eta erabaki horri zor zaio neurri handi batean irabazitako hori. Ea 20 urte barru ere, norbaitek honen antzeko artikulatu bat idatziz gero, balantze positibo bat egiteko moduan dagoen.

Amazabal Patronatuaren inguruko jakingarri batzuk

Amazabal Patronatua 1960. hamarkadan sortu zen, eta 1970. hamarkadan desegin. Tartean lan batzuk egin zituen, herriari gauza batzuk ekarri zizkion, eta horien berri labur emateko idatzi dugu artikulu hau. Patronatuaren inguruko eta patronatuaren lanean garrantzi handia izan zuten bi pertsonen inguruko zenbait jakingarri bildu ditugu, Leitzako historiaren zati bat direlako eta hori ere ezagutzea interesgarria dela uste dugulako.

PATXI ARRAZOLA, SARRIOREN SORTZAILE EUSKALTZALEA

1959ko otsailaren lehen ireki zituen atea Sarrion lantegiak, bi urteko obren ondoren. Patxi Arrazola zestoarra, orduan Berrobiko Uranga lantegiko gerente zena, izan zen lantegiaren sortzaile eta lehen urteetako kudeatzailea. Arrazola euskaltzalea zen, eta langile euskaldunen bila ibili omen zen “*herriz herri, baserriz baserri, zahar eta gazte, eskolatu ta eskolatu-gabe, euskalduna izatea aski eta Leitzako Papeleran bazuten lana ta irabazbidea*” (Principe de Viana aldizkaria, 1971), eta inguruko herri askotako langileak etorri ziren hona lanera. Eskualdeari garapen ekonomikoaz gain garapen soziala ere eskaini nahi zion Arrazolak.

Lantegia irekitzeak aldaketa handiak ekarri zituen Leitzara; ordura arte abeltzaintza eta nekazaritzatik bizi ziren herritarrak, dezente ziren baso-lanetara kanpora joaten zirenak ere, eta indus-



Patxi Arrazola.

triak bizimodua aurrera ateratzeko beste aukera bat ekarri zuen inguru hauetara. Gainera, biztanlerian izugarritzko hazkundera eragin zuen lantegi berriak: 1960an 1.626 biztanle izatetik, 1980an 3.262 izatera pasatu zen Leitzara. Aldaketa hauek ekarritako behar berriei erantzuteko sortu zen Amazabal Patronatua 1963an; “*Herri bat lantokiz, bizibidez eta bizitegiz ornitu arren, herritarrak buruz ez badira jaunzten lehengo malla berean gelditu da. Beharrezkoa zan bada ikastetxe berri ta ugari egitea. Erakusleak arkitzea, ikasleentzako josta lekuak jartzea ta abar. Era ontako lanak gastu aundiak eskatzen zituan. Ikaratu gabe, ekintza oni erantzuteko, Leitzako*

indar bizi guziak elkartu ziran; Parrokia, Ayuntamiento, Gurasoen Elkarte ta Papelera. Onela jaiotzen den elkarte” (Principe de Viana aldizkaria, 1971).

JOSE MANUEL LASARTEREN IZENDAPENA

Jose Manuel Lasarte etxarriarra Berueteke apaiza zen urte haietan, eta han Nafarroako lehen euskarazko irratia sortu zuen 1958an, frankismo bete-betean. 1964an Leitzara bidali zuen Iruñeko Artzapezpikutzak, eta izendapen orrian Lasarteri bi eginkizun ezarri zitzaizkion herri honetan, biak ere zibilak: Nekazari Eskola Profesionaleko Zuzendari izatea, batetik, eta Amazabal Patronatuaren kudeatzaile, bestetik. Garai hartan ez zen ohikoa apaiz baten

zeregin nagusiak erlijioz kanpokoak izatea. Baina Lasarte Leitzako garai hartako Don Nikolas Buldain erretorearen iloba zen, eta Patxi Arrazolak ere ezagutzen zuen eta bazekien Berueteke irratia. Patronatuaren helburu sozial eta kulturaletarako pertsona aproposa iruditzen zitzaizkion, eta, horregatik, Iruñeko Artzapezpikuarengana joan ziren, hau Bertizko jauregian baitzen oporrak pasatzen.

Gotzainaren kezka dirua omen zen, ea nork ordainduko zion Jose Manuel Lasarteri soldata izendapen hori eginez gero, baina hori konpontzen erraza zela erantzun omen zioten. “*Ez da gizon handi bati dagokiona diru arazoak*



Leitzako Nekazari Eskola.



Leitzako lanbide eskola industrialia.

lehen mailan jartzea, horiek izaten baitira beti konpontzeko errazena” bota omen zuen Patxi Arrazolak bile-ratik atera orduko. Izendapen hura ez zuten denek begi onez ikusi.

PATRONATUAREN ANTOLAKETA

Eliza, Sarrio eta Leitzako Udalaren artean sortu zuten *Amazabal* Patronatua fundazioa. Horiez gain, garaiko agintari politikoak ere zuzendaritzan zeuden. Lehendakaria Nafarroako Gobernadore Zibila zen; idazkaria eta kudeatzailea, Jose Manuel Lasarte; eta zuzendaritzako partaide edo bokalak: Leitzako Udaleko Alkatea, Parrokiako abade edo erretorea eta Sarriotik lau ordezkari; bi zuzendaritzak izendatuak eta beste biak langileek aukeratuak. Sarrioko zuzendaritzako ordezkaria Arrazola izan zen lehenik, eta gero Salvador Sarrió eta Lorenzo Marco Sarrió zuzendari izanak. Patronatuaren hasierako garai haietan, maila ezkuuago batean izan bazen ere, Miguel Javier Urmeneta ere aritu zen, orduan foru diputatua zena, lehenago Iruñeko alkate izana. Fundazio bat zen, esan bezala, eta herritarrek ez zuten bertan parte hartzen. Herritarrekiko hurbiltasuna faltako zitzaion, eta ziur aski herritar askok hori ere sumatuko zuten.

Azken batean, nolabait agintea ordezkatzan zuten pertsonak gidatzen zuten Patronatua eta herritar eta langileekiko distantzia ere sumatuko zen, bakoitza bere posizioan egonen baitzen.

Finantzaketari dagokionez, diru iturri nagusia Sarrioko langile bakoitzari soldatetik kendutako zatia zen. Diru puska hori ez zen langileek borondatez emandako zerbait, lantegiko zuzendaritzak berak erabakitakoa eta agindutakoa baizik. Horretaz gain, Patronatuak dirulaguntza ofizialak, emaitzak eta laguntza partikularrak ere jasotzen zituen.

Estatutuen arabera, bestalde, herriaren garapena sustatzea zen Patronatuaren helburua, horretarako sortu zen. 6. artikulua honela zioen:

“Fundazioaren helburua da Leitzako eta Leitzaren inguruko nahiz eraginpeko eskualdearen garapen ekonomiko, soziala, erlijioso eta kulturala bultzatzea eta indartzea, bertako behar fisikoak eta intelektualak asetzea, eta, horren bitartez, bertako herritarren bizitzamaila hobetzea. Helburu horiek lortzeko bere gisa eta bere bitartekoekin lan egin dezake, baita beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin, Korporazioekin, Sozietateekin edo partikularrekin lan-kidetzan ere.”

AMAZABAL PATRONATUARI ESKER EGINDAKOAK

Amazabal Patronatuaren bidez sortu edo egindakoak dira, besteak beste, —nahiz eta tartean beste eragile eta pertsona batzuk ere izan ziren— Lanbide Eskola Industrialia, Nekazari Eskola Profesionala eta ikasleentzako erresidentziak, pilotalekua, etxebizitzak, herriko liburutegia, jubilatuen elkarte, guraso katolikoek elkarrekin eta bere egoitza, eta baita ikastola ere. Gainera, eskola kontzentrazioa edo eskola publikoen berregituraketa ere patronatuari zor zaio.

Lasarte bera izan zen bai Lanbide Eskola Industrialia eta bai Nekazari Eskolako zuzendari eta arduradun nagusi. Lanbide Eskola Industrialean euskarak ez zuten behar zuten lekuri izan, Nafarroako Diputazioaren Lanbide eskole-tako sarean sartu baitzuten. Garrantzi handiagoa izan zuten euskarak Nekazari Eskolan. Bertako irakasle izan ziren, Lasartez gain, Joxe Larrea zegamarra, Jose Migel Orea uitziarra, Florenzio Irurtia Lizarraga eta Santi Larraz Zabaleta leitzarrak, besteak beste. Hara garaiko leitzar baten idatzia, Nekazari Eskolari buruz: “*ezdago dudarik nekazariak ere eskolatzea bear bearrezko*”

zaigula, eta ori da iritxi nai deguna Leitzako NEKAZARI IKASTOLA onen bitartez. Bildur gabe esan dezakegu emen daukala nekazariak, gaur bear-duan egiazko laguntza-tako bat jeta ez nola naiko laguntza! bertan jan, bertan lo egiñ, erakutsi franko eman eta illabete bakoitzeko amar duro besterik ezdute ordaindu bearrik izan. Beragaitik, nekazaritzan been bizimodua ateratzeko asmoan semeak dituztenak, ezluteke utzi bear iñork ikastola ontara bialdu gabe.” (Principe de Viana aldizkaria, 1968). Ireki eta bederatzzi urtera, 1974an, itxi egin zuten eta hurrengo urtean Oronotz-Mugairiko Nekazari Eskola ireki zen.

DENA EZIN

Lasartek ezin izan zituen, nolnahi ere, asmo guztiak bete Leitzan. Hasteko, ezin izan zuen Beruetekoaren segida izango zen lehen euskarazko irratia martxan jarri. 1964an Leitzara etorritakoan ekarri, ekarri zituen Berueteko irratiko tresnak; eliza-ganbarako erdiko gelan jarri zituen, eta antena eliz dorrera igo nahi zuen, baina saiatu arren ez zuen baimenik lortu. Guardia zibila bera etorri eta klausuratu egin zuen. Gainera, baimenik gabe aritzeko debekua bidali zioten idatziz.

Bestetik, 1965ean ikastola martxan jartzeko saiakeran ere parte hartu zuen. Hura ere eliza-ganbaran kokatu zen, baina lehendabiziko egunean bertan Guardia Zibilak haurrak etxera bidali eta ikastolako atea prezintatu zuen.

Patxi Zabaletak hari buruz *Euskera* aldizkarian 2007an argitaratutako lan batean esaten denez, eta Lasarteren lagun eta eskolan lankideak kontatuta, behin Lanbide Eskolan lagun talde bat bildu omen zen afal ondoren patxaran kopa bana hartzera. Hurrengo egunean Garicano Goñi Francoren Gobernazioko ministroak deitu omen zion Lasarteri, eskolan gaeuz bileraren bat egin ote zuten galdezka. Honek ezer ez jakin eta ezezkoa esan omen zion.



Leitzako haurtzaindegia.

1971n Arrazola kendu egin zuten Sarrioko zuzendaritzatik, eta hurrengo egunean hil zen, bihotzekoak emanda. Amazabal Patronatuak sortutako egitura bakoitzak bere bidea hartu zuen: Lanbide Eskolak, ikastolak, guraso katolikoek elkarteak, jubilatuen biltokiak, liburutegiak, eskolak eta abar. Nekazari Eskola 1974an itxi zen. 1978an Lasartek Leitzatik alde egitea erabaki zuen. Amazabal Patronatuak ez zuen luzaroan iraun handik aurrera; desegin egin zen eta bere ondasunak Nafarroako Gobernuaren eskuetara igaro ziren; Maxurrenea, besteak beste.

MAXURRENEA

1975. urtean Jose Perurenak eta Victoria Larratek Amazabal fundazioari utzi zioten eraikina erresidentzia bezala, edota hezkuntza edo gizartera bideratutako bestelako ekimenetarako izateko baldintzarekin. Amazabal Patronatuaren eskuetan Maxurreneak hainbat funtzio bete izan ditu: liburutegi publikoa izan zen, ezinduentzat zentroa, ikasleentzat erresidentzia eta Lanbide Heziketako egoitza, bestek beste.

1978an Amazabal elkarteak Nafarroako Gobernuari eman zion Maxurrenea, haiek jasotako baldintzekin: Leitzako herritarren mesederako, hezkuntzarako eta erabilpen kulturalerako izatea. Ha-

sieran Nafarroako Hezkuntza Departamenduaren esku geratu zen Maxurrenea, baina 1998. urtean ikasle egoitza bertan behera gelditu zen, eta Leitzako Udalak Maxurrenea kultur etxea izan zedin lehenengo pausoak eman zituen. Beste aukera batzuk ere aztertu zituen, hala nola zahar etxea edo museoa izatea. Urte askoan etxea hutsik egon zen, baina udalak eskatu arren gobernuak ez zion eman, bere beharretarako zuela eta.

2002. urtean Nafarroako Gobernuak Maxurrenea Espainiako Gobernuari alokatu zion kuartel bat egiteko, udalak berak eta herritar gehienek horren aurka zeudela oso argi adierazi zuten arren. *Maxurrenea herrintzat* aldarrikapenak indar handia hartu zuen, baina Leitzako herritarrak ados ez egon arren eta jabeak agindutako baldintzak bete ez arren, 2003ko abuztuan kuartel bilakatu zen Maxurrenea. 2013. urtean, herritarren borondatea bestelakoa izaten jarraitzen badu ere, eta Nafarroako Legebiltzarrak berak Maxurrenearen erabilera sozial, hezkuntzako edo kulturalaren aldeko erabakia onartu zuen arren, Nafarroako Gobernuak berriro egin dio kontratua Guardia Zibilar beste 10 urterako. Leitzan hain sentitua den *Maxurrenea Harriarentzat* aldarrikapenari ezezkoa eman dio, beraz, Nafarroako Gobernuak berriro ere.

Hi!

1. Umetan, Gorriztaranen.

“Hi!”Entzuten nien baserrian osabei, auzokoei, kanpotik etortzen zirenei; beti gizonezkoen arteko hizketaldietan.

Eta hala zelakoan hazi nintzen.

2. Institutuan, Iruñean.

“Hi, euskal aditzaren ezaugarri bitxienetariko bat da, aditz pertsonetan bigarrena eta, hortaz, euskarak pertsona marka gehiago ditu paradigmak osatzeko gaztelaniak baino” entzuten nion euskara erakusten zigun irakasle txikiari, txikia bezain bitxia baitzen hura.

Eta nik sinetsi egin nion hitanoa bitxia baino arraroa eta zailagoa zela ikasteko.

3. AEKn, irakasle.

“Hi, nahi al dun txiste bat? = norekin ari da?” zioen ikasleentzako ariketak. Ordurako glotodidaktika ikastaroetan erakutsi ziguten euskarak bere-berea duela eta galbidean zegoela...

Garai hartan, jakin-minak jota aritzen nintzen gure aurreko belaualdien jarioan erreparatzen eta jakin banekien gure amaren adineko emakumezko batzuk ere erabiltzen zutela.

4. Emakume artean.

“Hi! Niri hiketan egidan, e! ekin zidan, ofendituta neska batek Getariako pestetan. Hura minduta nik “zuka” egiten niolako; alegia, ez niola ba, haren konfiantzari tamaina berean erantzun. Gainera ni baino dezente gazteagoa zen. Sekulako eultzia eman zidan gertaera hark.

Garai hartan ohartu nintzen hitanoa bizirik zegoela eta ez jakiteak preso ninduela.

Urte haietan egin genuen topaketa txiki bat Leitzaan, Ttanttoka taldean emakume batzuk elkar hartuta: Gorrizko Lontxa, Asteitzagako Mikela zena... Uitziko Martimintxikiko Lontxari ere grabazioa egin genion...eta laguntzailer ugari ere izan genuen: Tomas Azpirotz, Bittorio Lizarraga, Mikel Olano, Torreko langileak...

Oharkabean, emakumeen begiekin ari ginen entzuten emakume haien ahotik ateratzen zen ekarpena, gure herriko historiaren puska eder bat.

5. Teknikari lanetan, ikasle.

“Hi, emakumea bere buruarekin ari denean gizona izateko moldean aritzen da...” esan ziguten ikastaro batean.

Euskara teknikari lanetan ikasteko aiherrak egoten naiz oraindik eta, Fernando Oiartzun lankidearen gogo biziak aukera emanda, “Mintza hadi” ikastaroa egin genuen Ritxi Lizartzaren eskutik; on askoa bai, ikastaroa. Makina bat izerdi ateratakoak gara, praktikatzeko tenorean; baita barre ederrak ere!

Bi kontu ikasi nituen orduan: bata, gogo bezalakorik ez dagoela ikasteko; bestea, “euskaldunberriak” nik baino aiseago aplikatzen dituela forma berriak.

Eman dit, nola ez, zer pentsa.



6. Emakumearen begitik.

“Hi, Ima, egion oparia heure buruari! esaten diot aldan behin neure buruari.

2014ak mutturra erakusten ari zaigu eta lerrook idazten ari naizenean “Hizkera ez sexista” izeneko ikastaroa ematen ari naiz lanean; hurrengo ikastaroa praktikoa izanen da eta feminismoaren diskurtsoarekin bat eginda jardunen dugu; emakumezkook agerian jarri behar dugu geure burua eta, ondorioz, gure hizkera propioa asmatu, sortu, egokitu, baliatu...

We can do It!

baietz asmatu!



Argazki hau KORRIKAREN 4. ediziokoa da, 1985. urtekoa hain zuzen ere. Euskararen aldeko lasterketa Atharratzetik abiatu zen maiatzaren 31n, eta Gasteizen bukatu ekainaren 9an, tartean 1.927 kilometro eginda. “Herri bat, hizkuntza bat” izan zen KORRIKAREN leloa edo mezua urte hartan.

1985eko KORRIKAK Leitzaan egin zituen kilometro batzuk, bertatik pasa baitzen urte hartan. Argazkian aurpegi ezagunak ikusiko dituzue ziur asko, nahiz eta itxura dezente aldatuko zitzaaien denei. Ez dira alferrik pasa 28 urte!

Ezetz asmatu! izena jarri behar genion azken orrialdeko atal honi, baina *Baietz asmatu!* jarri diogu, ziur baikaude horko hainbat lagun nor diren asmatzera iritsiko zaretela. Animo!